



Neure kabuz



**Mailu Arruti**

**Azken egun hauetan**

Azken egun hauetan Espainiako gobernu osa ezinak eman dituen perlak entzuteko pazientzia daukagu oraindik ere. Ez gera makalak alajainkoa!

Azkenean nahi dutena egin dezatela. Katalanen arazoa gainditu ezinezko harri kozkorra bihurtu den bitartean, Euskal Herria agendaz kanpo geratu omen da.

Azken finean, gurea egin behar dugu. Igandean Errauskailuaren aurkako mobilizazioa Zubietan, zoragarri, jende pila. Gai honekin asmatu beharra dago. Didaktika, didaktika eta didaktika. Ahal dugun guztia berrerrabili eta birziklatu behar dugu. Gure osasunak eskertuko du eta gure ondorengoenak ere bai.

Azkenean Martxoak 8 iritsi da. Zutik emakumeak eta gizasemeak! Denon beharra du parekidetasunaren borrorak.

Azken aldian oso kezkatuta nauka gai honek. Emakumeek gero eta prestakuntza akademiko handiagoak, gero eta independentzia ekonomiko handiagoak, berdintasuna eta askatasuna ekarriko zuela emakumeen mundura sinestuta egon naiz urteetan. Baina hori ez ote den betetzen ari susmoa hartzen hasita nago.


Azken aldiko mikromatxismoak, emakumeak gutxiesten dituzten txiste grazia izpirik gabeak, hainbeste eraso (eta oraindik erasoak identifikatzen ikasten hasi besterik ez gara egin), bikote gazteetan maitasunaren izeanean kontrola eta jazarpena, hainbeste bortxaketa eta erailketa. Zer ari gara gaizki egiten?

Azken egun hauetan Arnaldo Otegi aipatu gabe ezin ba pasa. Honen inguruan burutapen bat: Partidu guztietan barne borroka sutsuak egoten dira gidaritzatza postuetan kolokatzeko.

Pertsona bat harro egoteko arrazoi ederra izango da kideek lehendakartzara aurkezteko horrela eskatzea eta lehiara aurkeztuko diren beste zerrenda buruek (batzuk bederen) errekonozimendua ematea.

Azken aste honetan bi preso gutxiago.

Zorion agurrak



Oier

Zorionak politta, zazpi txokolatezko muxu eta ondo pasa zure urtebetetzean. Ah ze goxo sutondoan! Enaut, aiton-amona eta familien partetik



Aner

Zorionak bitxito!!!! Ondo pasa zure 2. urtebetetzean. Muxu asko familia guztiaren partetik.



Nara

Zorionak printzesa!!! Oso oso ondo pasa zure 8 urtebetetzean. Muxu asko familia guztiaren partetik.



Lur

Zorionak Lurtxu zure hamar muxu gurasoen partetik.



Jose Antonio eta Iker

Zorionak aitona zoragarri eta 10 urte egiten dituen ilobari. Elkarrekin gehiago egitea espero dugu. Muxu handia familiaren partetik.



Iune

Gure etxeko erreginarentzako...mila pila muxu!!! Oier eta familia guztiaren partetik. Oso ondo pasa zure egunean!!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 37 14 48, txintxarri@txintxarri.eus edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezin Eskaintza

- Garajea saltzen da Andatza plazan, 44 metro karratu. Monobolumen edo furgoneta baten-tzako edo 3 kotxeentzako egokia. 647 737 388.
- Pisua alokairuan Usurbilgo kaxkoan, pisu polita eta argitsua. 2 gela, sukaldea, egongela, komuna eta trasteleku. Altzariz horituta. Tf: 670070562
- Etxea salgai Cascanten (Nafarroa) nekazal eremuan. 2000 metro karratuko lur eremua. Etxeak 93 metro karratu, 2 gela eta egurrezko berogailudun egongela. Trasteleku. Informazio gehiago, 655738167

Salerosketa

- Bizkien karroa saltzen da. Easy Walker marka. Errosto asmoa duenarekin prezioa adostuko da. Harremanetarako, 607 49 06 52.
- 'Martins' bota gorriak salgai, 47 neurrikoak. Gutxi erabilitakoak dira; 40 eurotan saltzen ditut. Joseba. 688 659 165/943 36 00 42.

Lan-eskaintza

- Pertsona bat behar da umeak eguerdian

zaintzeko, 12:30etik 14:30era. 606 729 199, Ainhoa.

Lan-eskaria

- 45 urteko gizonak pertsona adinduak edo dependenteak zaintzen lana bilatzen du. Beste sektoreetara ere irekia. Esperientzia handikoa eta arduratsua. Hobe goizetan. 943 161 350 edo 692 334 211.
- Etxe batean interna edo externa moduan lan egingo nuke. 658 930 235.

Bestelakoak

- Inork baztertuta edukiko balu, 8 urteko haur batentzako bateria bat hartuko nuke. 943 36 26 14
- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 766 068.

Jaiotzak Heriotzak

Heriotzak

- Jose Dafonte Martinez, martxoaren 2an, 73 urte zituela.
- Daniela Casado Brezmes, otsailaren 26an, 66 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

<b>Ostirala, 4</b>	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
<b>Larunbata, 5</b>	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
<b>Igandea, 6</b>	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
<b>Astelehena, 7</b>	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
<b>Asteartea, 8</b>	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
<b>Asteazkena, 9</b>	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
<b>Osteguna, 10</b>	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Echeveste Elosegi, Elkano 9  
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 371 448  
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Martin Vicioso, Inigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika  
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

## UDALA



Lourdes Acevedo zinegotziak zehaztu zuenez, "laster" sinatuko dute hitzarmena Udalak eta Lanbidek Kaltetutako Plataformak.

## Lanbidek Kaltetutako Plataformarekin hitzarmena

Udalak 3.000 euroko laguntza emango dio plataformari

**Udalak eta Lanbidek Kaltetutako Plataformak hitzarmen bat sinatuko dute. 3.000 euroko diru-laguntza jasoko du plataformak, eta herriko lokal bat ere erabili ahal izango du, astero-astero, zenbait orduz; DBE Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren okerreko ordainketaren arazoa pairatu duten familia lasarteoriarrei lagunduko diete bertan.**

## TXINTXARRI

Udaleko eta plataformako kideek agerraldia egin zuten iragan astelehenean, akordioaren nondik-norakoak azaltzeko. Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzueta zinegotziak aurreratu zuenez, hitzarmenaren txostena idazten ari da batzordea; "laster" sinatuko dute. Prentsurrekoan nabarmendu zuten, "aitzindaria" da Lasarte-Oriako udala horrelako akordio bat sinatzen.

Udalak 3.000 euroko diru-laguntza emango dio plataformari, eta lokal bat ere utziko dio astero-astero, zenbait orduz, DBE laguntzaren okerreko ordainketatik kalteuak izan diren familia lasarteoriarrei laguntzeko.

Jesus Zaballos alkateak azaldu zuenez, familia horiek Udaleko Gizarte Zerbitzueta-ko beharko dute aurrena. Gizarte langilearekin euren kasua aztertu ostean, plataformara bideratuko dituzte familiak; batez ere aholkularitza juridikoa jasoko dute eta eman beharreko urratsen berri ere izango dute. Herrian erroldatuta egon beharko dute familiak laguntza jaso ahal izateko.

### "Lanbide da erantzulea"

"Eusko Jaurlaritzaren Lanbide

zerbitzuak gaizki egin ditu DBE laguntzaren hainbat ordainketa, azken urteotan. Familia askok zor handiak dituzte orain; diru asko buelatu behar dute, eta askok ezin dute. Erantzuleak, baina, ez dira haiek, Lanbide bera baizik. Udalaren eskumena ez den arren, afera horretan esku hartzeko beharra ikusi du, pertsona asko egoera babesgabe batean geratu baitira okerreko ordainketa horien ondorioz", azaldu zuen Zaballosek astelehenean.

Plataformako kide Vicky Molinak "laguntza pozitsuak" terminoa erabili zuen, DBE laguntzen "okerreko ordainketen" afera azaltzeko: "Gizarte laguntza batetik horrenbesteko arazoak eta zorrak sortzea pentsaezina zen guretzat".

Patxi Lopez (PSE-EE) lehendakari zenean 2009. eta 2012. urte bitartean hartu zuen Lanbidek DBE laguntzak kudeatzeko ardurara. Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte Zerbitzuen sailburuak erabaki zuen eskumen aldaketa egitea: udaletxeetako gizarte zerbitzuek kudeatzen zuten ordu arte.

Josean Gonzalez de Sampedro da plataformako kideetako bat. Haren hitzetan,

Lanbidek ez dauka "behar beste gaitasunik" gai hori kudeatzeko: "Paper mordo batekin egin zuten topo, eta laguntzak nahi bezala hasi ziren banatzen, beharrezko irizpideak aintzat hartu gabe. Horren ondorioz, hainbat pertsona geratu dira orain babesik gabe, eta zor ikaragarri altuekin".

### Kaltetu ugari

2014tik darama plataformak arazo hori izan duten pertsonen laguntzen.

Plataformako kideek hiru kasu jorratu ohi dituzte. Bate-tik, aurreikuspenarena. Hau da, saiatzen dira familiek ez galtzea DBE laguntza hori, horretarako neurriak landuz.

Beste hainbat alditan, "itzulpun-kuota bidezko bat" negoziatzen dute, DBE oker ordaindu zaien pertsonen zorra kitatzeko aukera izan dezaten.

Azkenik, saiatzen dira laguntza hori berreskuratzeko formulak bilatzen, dagoeneko diru hori jasotzen ez duten familiekin.

"Euskal Herri osoan 80.000-90.000 familia inguru izan dira kaltetuak", zehaztu zuen Josean Gonzalez de Sampedro plataformako kideak.

### "Oinarrizko eskubidea"

Acevedok agerraldian adierazi zuenez, "oinarrizko eskubidea" da DBE laguntza jaso ahal izatea.

Era berean, administrazioen zeregina "egoera babesgabean" geratu diren familiak laguntzea zela azpimarratu zuen.

## SORGIN JAIK

Sorgin Jaien 15. urteurrena

Sorgin Jaiak-eko lagunak lanean hasi dira eta aurtengo festak antolatzeke lehen bilera finkatu dute. Gaur egingo diote lanari: Xirimiri elkartearen egingo dute bilera, 17:30ean.

Aurten 15 urte betetzen dira herriak lehenengo Sorgin Jaiak ospatu zituenetik. "Urteak pasa urteak etorri, herriari herriko festak eman dizkiogu denon artean", adierazi dute kideek.

Hori dela eta, gazteak, koadrilak eta herritarrek animatu nahi dituzte bilera hurbildu eta egitarau berezia osatzeko proposamenak egitera.

## GAZTE KLUBA

Postre lehiaketa martxoaren 11n

Gazte Klubeko lagunak azken urteetan arrakasta handia duen ekintza burutuko dute, postre lehiaketa.

Lehiaketa martxoaren 11n egingo da, Okendo plazan. 9 eta 12 urte bitarteko gazteek parte hartuko ahalko dute taldeka. Taldeak 4-5 pertsonakoak izan behar dute.

Informazio gehiago eta izen-ematea 943 37 14 48 telefonon, [aisia@ttakun.eus](mailto:aisia@ttakun.eus) helbide elektronikoa edo Ttakuneko bulegoan eskainiko da. Izena emateko azken eguna martxoaren 9a izango da.

## USURBILGO LANBIDE ESKOLA

Etorkizuneko Manufaktura

Usurbilgo Lanbide Eskolak CIPF USURBIL ECOSISTEMA I3D proiektuaren barruan, Tumaker eta Arbonies eta Asociados enpresetako adituen laguntzaz atzo inguruko hamabi enpresei lean manufacturing eta 3.0. ekoizpenaren inguruko mintegi bat eskaini zien teknologia berri honek diseinuan, logistikan, salmenta-ondoko zerbitzutan, eta abar luze batean eskaintzen dituen aukerak ezagutu ditzaten.

## AMARAUN KLUBA

Koloreak lantzeko tailerra

Amaraun Klubeko txikienei, HH2 maila, zuzendutako tailer berria egingo da martxoaren 8an, asteartez, 17:30etik 18:15ak arte, Zumaburu ikastetxe psikomotrizitate gelan.

Saio honetan koloreak landuko dituzte hainbat joko eta eskulanean bitartez eta bodypaint-a ere egingo da.

Aita, ama, aitona, amona, osaba edo izeba... haurrak heldu batekin batera parte hartu behar du ekintza honetan.

Informazio gehiago eta izena ematea 943 37 14 48 telefonon, [aisia@ttakun.eus](mailto:aisia@ttakun.eus) helbide elektronikoa edo Ttakuneko bulegoan eskainiko da.

## BIYAK BAT

Errioxara irteera

Biyak Bat erretiratuen elkarteak Errioxako Pradejon herrira irteera antolatu du. Bidaia martxoaren 15ean, asteartean, izango da. Pradejonean txanpiñoi eta perretxikoak hazten diren zentro didaktiko eta ikus-entzunezkoa bisitatuko dute. Bazkaria Hostal Venecian izango da.

Irteeran parte hartzeko bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, aldiz, 45 euro.

Izena ematea elkartearen egoitzeko bulegoan egingo da astelehenean ostiralera 10:30etik 12:30era.

## KZGUNEAK

Teknologia berriei buruzko ikastaroak

KZgunea sareak teknologia berriei buruzko doako zerbitzuen eta ikastaroen katalogo zabala eskaintzen du martxo eta apirilean.

'Oinarrizko Internet', 'Ikasi zure Smartphone edo Tableta erabiltzen', 'Sare Sozialak 2.0. Komunika zaitez Sare Sozialen bitartez', 'Googles Apps. Google aplikazioak gestio personalerako' edo 'Argazki Ukutua GIMP erabiliz' dira ikastaroetako batzuk.

Aurrez izena eman behar da eta [kzgunea.net](http://kzgunea.net) web orriaren bitartez egin behar da.

Informazio gehiago nahi duen herritarrek Lasarte-Oriako Gaztekluban dagoen bulegora hurbildu behar dute 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara edo telefonoz dei daiteke 943 02 36 60 zenbakira.

# “Bizikidetza eraikitze” ikastaro-sorta

Bailarako Elkarbizi taldeek hamabi kurtso egingo dituzte, martxotik abendura bitartean

Elkarbizi egitasmoko kideek bizikidetza eraikitze bigarren programa prestatu dute; urte honetan zehar landuko dute, martxotik hasi eta abendura bitartean. Ikastaroak antolatu dituzte, hamabi denara: horietatik laurdenak egingo dituzte Lasarte-Orian. Lehenengoa, hilaren 12an, Villa Mirentxun. Kurtso horretarako plazak mugatuak dira.

TXINTXARRI

**B**izikidetza soziopolitiko sendotzeko beharrezkoak diren zenbait gai aztertuko ditugu ikastaroetan: indarkeriaren kontakizuna egiterakoan memoriak eta historiak baliorik duten ala ez, justiziak eta komunikabideek elkarbizitza hobetzeko bete dezaketen papera edota tortentuen memoria, besteak beste”, azaldu zuen Joxean Rekondo Hernaniko Elkarbiziko kideak, asteartean egindako prentsaurrekoan.

Lasarte-Oriako Ganbo Iturri elkartearen egoitzan bildu ziren bailarako Elkarbizi egitasmoetako kideak, astearte goizean. Azaldu zuten zertan den 2016an zehar jorratuko duten programa.

Ikastaro-sorta bat prestatu dute: hamabi izango dira denara eta martxotik abendura bitartean egingo dituzte. Rekondok aipatu zuenez,

“eraikitzailea” izan daiteke “euskarri herritarrei egindako kalte guztia” erakustea ikastaroetan, “bizikidetzaren oinarri sendoak” jartzerakoan.

Elkarbizikoek lehenengo urtean antolatu zituzten aurreneko “bizikidetzaren aldeko” jardunaldi eta ikastaroak. Esperientzia errepikatu egingo dute aurten, jorratu beharreko gaiak aldatuz.

## Lehenengoa, Lasarte-Orian

Prestatu dituzten hamabi ikastaroetatik hiru gure herrian egingo dituzte. Hilaren 12an izango da lehenengoa, Villa Mirentxu aretoan, 11:00etan.

Xabier Minguez eta Imanol Lizarralde doktoreek –Soziopsikologian eta Historian, hurrenez hurren– hitz egingo dute. Gai hau jorratuko dute: *‘Indarkeriaren kontakizuna, osasuna eta bideraketa, memoria edo/eta historiaren bidez?’*. Hitzaldiaren ostean, ikastaroko kideen artean foro moduko



Elkarbizi ekimeneko lagunek martxotik abendura arte antolatu dituzten kurtsoen berri eman zuten.

bat ere egingo dute, Rekondok aurreratu zuenez: “Kurtsoak parte-hartzaileak izatea nahi dugu”.

Mugatuak dira ikastaroan parte hartzeko plazak, antolatzailerik asteartean zehaztu zuten: hogeit hamar pertsona gehienez. Izena martxoaren 9a baino lehen eman beharko dute, [ganboiturri@gmail.com](mailto:ganboiturri@gmail.com) helbidera mezu elektronikoko bidez bidalita.

Arestian esan bezala, hiru ikastaro egingo dituzte denara

Lasarte-Orian. Ekainaren 25ean eta uztailaren 16an izango dira beste biak. Lehenengoa ‘Autokritikaren balioa’ dokumentala aztertuko dute, eta bigarren ‘Elkarbizitza, biolentzia eta legitimitatea’ gaia jorratuko. Zehazteko dituzte oraindik hizlariak.

“Bailarako herri guztietan” emango dira hamabi ikastaroak, hilabeteotan: hiru Lasarte-Orian, beste hiru Hernanin eta bina Andoainen, Astigarragan eta Urnietan.

Hernaniko ikastaroak apirilaren 9an, urriaren 19an eta urriaren 29an izango dira. Astigarragakoak berriz, maiatzaren 14an eta urriaren 8an.

Arestian esan bezala, pare bat egingo dituzte Andoainen, ondoko egunotan: ekainaren 4an eta irailaren 10ean. Azkenik, apirilaren 30ean eta abenduaren 10ean egingo dituzte Urnietako biak.

Asteartean aipatu zuten, aurrerago emango dituzte kurtsoei buruzko detaile gehiago.

## Kaleratzeak saihesteko zerbitzua herritarren eskura

**A**steazkenean Jesus Zaballo alkate, Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako buru eta Izaskun Oronoz Gizarte Zerbitzuetako teknikariak Lasarte-Oriako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lanean eskainiko duen zerbitzu berria azaldu zuten: kaleratzeak saihesteko zerbitzua.

Honen bitartez, Lasarte-Oriako Udalak bat egingo du Foru Aldundiak eskaintzen duen laguntza juridiko zerbitzuekin eta herritarrek herriko Gizarte Zerbitzuen bitartez haien arazoari bide eman ahaliko diote.

Jesus Zaballo alkateak aipatu zuenez, Udaltzatzairean onartutako Kaleratzeak Stop plataformaren eskaeraren baitan eskaintzen da zerbitzu hau. Helburua, Lasarte-Oria kaleratzerik gabeko herria izatea.

### Baldintzak

Oraingoz, finantza erakundeekin zor hipotekarioa duten eta kaleratze arriskuan dau-

den herritarrek jo dezakete zerbitzu honetara.

Baina beste baldintza batzuk ere bete behar dituzte Izaskun Oronoz Gizarte Zerbitzuetako teknikariak azaldu modura: herrian erroldatua egotea eta etxebizitza Gipuzkoan egotea, bigarren etxebizitzarik ez izatea, borondate oneko zordun izatea, hau da, langabezian geratu edo dirurik gabe geratzea edo giza-bazterkeria pairatzea.

Alkateak adierazi zuenez, gainera, doako justiziarekin alderatuta, zerbitzu hau erabiliz herritar gehiagok izan dezake aukera haien kaleratzea saihesteko. “Doako justiziak zure kasua begiratzeko IPREM bider bi izan behar duzu, baina kasu honetan IPREM bider bost da, hau da urtean 30.000 euro baino gutxiago irabazten duten herritarrek erabili ahal dute”.

### Egitekoak

Baldintza hauek betetzen dituzte herritarrek Udalaren Gizarte Zerbitzuetara jo eta



Jesus Zaballo Lasarte-Oriako alkatea, Gizarte Zerbitzuetako buru Lourdes Acevedo eta Izaskun Oronoz teknikaria agerraldian.

beharrezkoak diren dokumentuak beteko dituzte. Abokatuei dokumentazioa bidali, balorazioa egin eta martxan jarriko zen kasua. Gainera, abokatuarekin lehen bilera Lasarte-Orian Gizarte Zerbitzuetan izango litzatekeela aurreratu dute.

### Urte bete lanean

Zerbitzuak kasu askotan exekuzio hipotekarioa saihestea lortu duela azpimarratu du alkateak.

Izaskun Oronozek azaldu moduan, 2015 urteko maia-

zatean jarri zen martxan zerbitzua eta Irun, Arrasate eta Berastegiko kasuak landu dituzte.

Jendearen harrera eta emaitza ikusita orain beste herriei gonbida egin die Foru Aldundiak. Lasarte-Oriak bat egingo du.

### Herritarrei gonbida

Hau guztiagatik, Lasarte-Oriako Udalak herritarrei haien arazoa Gizarte Zerbitzuetako langileei jakitera ematera gonbidatzen ditu. Izan ere, kasu bakoitza aztertuko baita.

Izaskunek azpimarratu zuenez, “horrek gainera Gizarte Zerbitzuei Lasarte-Oriako kaleratze kasuen mapa bat egitea ahalbideratuko dio. Prozesua juridikoa hasi gabe dutenak edo prozesuan daudenak, baita alokairuetako kasuak ere”.

Izan ere, Lasarte-Orian eta Gipuzkoan orokorrean alokairuen arazoa larria da. Aldundiari egoera jakinarazi diotela eta zerbitzuen eskaintza zabaltzen dutenerako kontuan izango duela aipatu zietela jakinarazi zuten agerraldian.

# Ekintza ugari Emakumearen Nazioarteko egunean

## Martxoaren 8ko egitaraua aurkeztu dute Udalak eta herriko eragileek

Emakumearen Nazioarteko eguna ospatuko da datorren asteartean. Hori dela eta, gaurtik aurrera eta hurrengo asteko igandera arte ekintza ugari antolatu dituzte Udalak eta herriko eragileek. Besteak beste, Biyak Bat-en eskutik egingo dute umoreterapia saioa, eta izena emateko epea gaur bertan bukatuko da. Lehenengo aldiz Berdintasunaren Aldeko Martxa egingo dute 12an.

### TXINTXARRI

**M**artxoaren 8ra begira ekintza ugari eta anitzekin gozatzeko parada izango dute Lasarte-Oriako biztanleek. Udalak eta zenbait eragilek antolatuta, egitarau zabala prestatu dute.

Okendo Zinema Taldearen eskutik 'Sufragistas' filmaren zineforuma ikusi ahal izango da gaur Manuel Lekuona kultur etxean.

### Martxoaren 8a

Emakumearen Nazioarteko egunez Lasarte-Oriako ikastetxeetako ikasleek erakusketa prestatuko dute Antonio Mercero aretoan.

Euskal emakume garrantzitsuen lana nabarmenduko dute 11:00etatik aurrera bisitatu ahal izango den erakustaldian.

Ondoren, agerraldia egingo dute Okendo plazan 12:00etan. Herritarrak bertaratzeko deia luzatu dute alkate Jesus Maria Zaballosek eta gizarte zerbitzuetako zinegotzi Lourdes Acevedok.

### Liburu aurkezpena

Maria Morales idazle andoindarrak "La consciencia del tiempo" eleberria aurkeztuko du asteartean Emakumearen zentro zibikoan.

Oxforden girotutako istorio erromantiko eta erotikoa azaldu duenez, "emakumearen irudiari egin-

dako omenaldia" da. "Norber espazioan eta gizartearen segurtasuna" hartzea bilatzen duena.

### Umoreterapia

Biyak Bat erretiratuen elkarteak saio berezia antolatu du asteazkenean. Nagore Vazquez psikologoak gidatuta, jolasa, emozioa eta umorea landuko dituzte.

Umoreterapia tailer honetan izena emateko azkeneko eguna gaur da. Beraz, parte hartze nahi dutenek azkar ibili beharko dute.

### Ipuin kontaketa saioak

Haur eta helduek ipuin kontakizunekin arratsalde atsegina igarotzeko parada izango dute ostegunean.

6 urtetik aurrerako txikiengatik Beatriz Egizabal kontalaria "Batak panpinak, besteak superheroiak" ipuina irakurriko du liburutegian.

Helduek, bestalde, kontakizun erotikoak entzungo dituzte hitzaldi aretoan. Ines Bengoak "Hotzikara" ipuina irakurriko die bertaratzeko diren lasarte-riarrei.

### Antzerki eta afaria

Lan eta Lan antzerki taldeak Noel Cowarden "Un espíritu burlón" antzeztuko du hurrengo asteko ostiralean, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur etxean.

Sarrerak hiru euroko kostua izango du, eta antzerki taldearentzat izango da bildutako



Hainbat eragileren artean prestatu dute Emakumearen Nazioarteko eguna ospatzeko egitaraua.

diru guztia. "Urtean zehar lan handia" egiten dutela aldarrikatu dute taldeko kideek.

Ondoren, herri afaria eta dantza antolatu dituzte El Jardín jatetxean. Interesa dutenek Emakumeen Zentro Zibikoan eman beharko dute izena 25 euroren truke.

### Berdintasunaren aldeko martxa

Lehenengo aldiz, berdintasunaren aldeko martxa egingo da Lasarte-Orian. Martxoaren 12an, larunbatean, Okendo plazatik aterako dira herritarrak oinez, bizikletaz eta patinez, besteak beste.

Herriari buelta emango diote, plazan hasi eta bukatuz. Zinegotzi Maite Iglesiasek azaldu duenez, bidegorrietatik egingo dute martxa.

Goizeko hamaiketan berdintasunaren aldeko dekalogo eta bisera banatuko dituzte, martxan jarri aurretik. Ibilaldia amaitzean Donostia-ko Masaje Eskolaren eskutik

masajetxo bat jasotzeko aukera izango dute bertaratzeko.

Alkateak herritarrak gonbidatu ditu martxan parte hartze-ara. Azpimarratu du "antolatzen diren kirol frogetan herritar asko" aritzen dela. Beste mota-tako jarduera izanik ere, "antzeko erantzuna jasotzea" espero du.

Igandean gorputzak astintzeko parada izango dute lasarte-riarrek. Zunba maratoia egingo dute 11:00etatik aurrera Okendo plazan. Jakinarazi dutenez, euria eginez gero, Trinketera joango lirake.

### Talde Feministaren egitaraua

Emakumearen nazioarteko eguna baliatuz, berezko egitaraua prestatu du Lasarteko Talde Feministak, Lasarte Moria ize-nez.

Astelehenean hasiko dituzte ekintzak. Elebeltz Sorkuntza Askerako Topagunean kafe tertulia egingo dute 19:00etan.

Zortzian, aldiz, Donostian egingo den manifestaldira joateko deia luzatu dute Talde Feministako kideek. 19:30ean hasiko da Bulebarretik.

'El test de la vida' dokumentala proiektatuko dute asteazkenean arratsaldeko 19:00etan Elebeltzen. Ondoren, "identitate ez normatiboen" inguruan arituko dira solasean Amets Jordan Arrietarekin.

Hilaren 10ean, ostegunean, Okendo plazan dantzarekin gozatzeko parada egongo da. Kukukak saioa egingo du 19:00etan. Jarraian, trago batzuk hartuko dituzte batera herriko kaleetatik egingo duten poteo feministan.

Kirolari ere tartetxo bat eskainiko diote Talde Feministako lagunek. Ostiralean pala txapelketa jokatu-ko Loidibarrengo frontoian, 18:00etan hasita. 'Palan prest' emakume taldeak jakinarazi duenez, bikoteak zozketa bidez egingo dituzte lehiaketa hasi aurretik.

Pilota astindu ostean afaria egingo dute Xirimiri elkarte-ko, 21:00etatik aurrera. Txartelak herriko tabernetan jarriko dituzte salgai hamar eurotan.

### Elikadura eta minbizia

Semblante Andaluz elkarteak ere Emakumearen Nazioarteko Egunari begirako ekintzak antolatu ditu.

Hilaren 11ean "Elikadura eta minbiziari" buruzko hitzaldia eskainiko du Mabel Arciniega doktoreak. Debagoieneko larrialdietako medikua da, eta osasunari eta jakiei buruz gogoeta egin araziko die bertaratzeko.

Ondoren, 21:00etatik aurrera, afaria egingo dute elkarte-ko bertan. Indarra hartu ostean dantzari ere tartea utzi-ko diote.



Lehenengo urteko martxoaren 8an Okendo plazan egin zuten elkarretaratzeari Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Lasarte-ko Talde Feministak egitarau berezia antolatu du.

## Emakumeen nazioarteko eguna

2010ko martxoaren 8a

- ♀ **astelehena 7\_ kafe tertulia** 19.00tan elebeltzen
- ♀ **asteartea 8\_ manifestazioa** Donostian 19.30tan Bulebarrean
- ♀ **asteazkena 9\_ el test de la vida** dokumentala identitate ez normatiboen inguruan\_ solasaldia Amets Jordan Arrietarekin 19.00tan elebeltzen
- ♀ **osteguna 10\_ dantza saioa** Kukukaren eskutik 19.00tan Okendon jarraian **poteo feminista**
- ♀ **ostirala 11\_ pala txapelketa** bikoteak zozketa bidez egingo dira 18.00tan Loidibarrenen
- ♀ **eta ondoren, emakumeen afaria** txartelak tabernetan salgai 10€ 21.00tan Xirimirin

Lasarte Moria

antolatzaileak: Lasarte-ko talde feminista\_ Gazte asanblada\_ Palan prest emakume taldea\_ Kukuka antzerki eta dantza eskola\_ Elebeltz

## LABURRAK.-

## Baldintza meteorologikoen eta arerioek ez zituzten 16 eta 18 urtez azpiko Beltzak mendean hartu

Hainbat arerori egin behar izan zieten aurre 16 eta 18 urtez azpiko Gure Etxea Beltzak taldeek. Batetik, Atletico San Sebastian taldeko jokalariei; bestetik, eguraldi kaskarrari –etengabeko euri-zaparradek putzuak sortu zituzten Michelingo zelaian–. Baldintzak baldintza eta arerioak arerio, Beltzak taldeek aurrera atera zituzten euren norgehiagokak, jokoan zeuden hiru puntuak poltsikoratuz. 16 urtez beherakoek garaipen argia erdietsi zuten: 56-7. 18 urtez azpikoek, aldiz, 17-0 irabazi zuten.

Seniorren Ohorezko B mailan ari den Babyauto Zarautzek ere patrikaratu zituen hiru puntuak pasa den asteburuan. Atzeratutako partidu bat zeukan jokatzeko, Eibarren kontra, Zarauzko Asti zelaian. Etxekoak gailendu ziren, 31-0. Zarautzen ere, eguraldi kaskarrak zaildu egin zuen bi taldeen jarduna. Ez horrenbeste Fran Puertasen jokalaria, hala ere: lau jardunaldiren faltan, euren multzoko txapelkunak dira jada. Lau herritarrek jokatu zuten larunbateko norgehiagoka hori: David Vega eta Xabier eta Ander Rekondo anaiak hasieratik aritu ziren; bigarren zatian zelairatu zen Xabier Prieto. Oviedo RCren kontra jokatu dute bihar, El Naranco zelaian, 16:00etan.



## Buruntzaldea IKTKo igerilari gazteak ederki Azpeitin

Benjamin zein alebin mailako hamazazpi gaztetxo aritu ziren igerian Azpeitin, igandean, 50 metroetako serietako finaleran. Goiz ederra igaro zuten denek, bakoitzak bere proban lehiatuz. Maila ederra eman zuten denek. Urrezko dominak kolkoratu zituzten hainbatek: Leire eta Ainhoa Martinek eta Unai G. Somovillak. 50 bizkar proban nagusitu zen Leire, 33"86ko denbora eginez. Ainhoak 50 tximeleta-koa irabazi zuen (34"39) eta Unai G. Somovillak 50 librekoa (28"96).

## Urrezko domina kolkoratu du Enara Fernandez eskiatzaileak II. FEDC kopan, Baqueira Bereten

Urtarrila amaierako arantzaxoa –ezin izan zuen igo podiora, erori egin baitzen I. FEDC kopan– atera zuen Enara Fernandezek pasa den asteburuan, Baqueira Bereten (Herralde Katalanak) jokatu duen II. FEDC kopan. Jubenil emakumezkoen kategorian lehiatu zuen herriko eskiatzaileak. Lehenengo postua eskuratuta, urrezko domina kolkoratu zuen, Silvia Alsina gidaren laguntzaz. Andrea Perez kataluniarrak eskuratu zuen zilarrezkoa; Andrea Poo izan zuen laguntzaile. Eguraldi txarra zela kausa, larunbateko saioa bertan behera utzi behar izan zuten antolatzaileek; igandekoan gailendu zen Fernandez.



## TXIRRINDULARITZA.-

## Bazpiko txirrindulariak, errepidean

Luken Carbayeda juniorrak 4. postua erdietsi zuen Eibarren

Hainbat hilabete entrentzen pasa ostean, errepidean lehiatzen hasi dira Buruntzazpi eskolako txirrindulariak. Iragan asteburutik ekainera bitarte, probaz jositako egutegi bat dute aurretik alebin, infantil, kadete eta juniorrek. Argi dituzte helburuak: bizikleta gainean gozatu eta formatzea.

## IÑIGO GONZALEZ

Gimnasio-lana eta arrabola egiten igarotako orduak atzean utzi eta errepidera atera dituzte bizikletak Buruntzazpi eskolako txirrindulariek. Iragan asteburuan ederki astindu zituzten pedalak juniorrek eta kadeteek. Alebin eta infantilak ere aritzekoak ziren, Hondarribian, baina izerditu gabe itzuli ziren etxera; antolatzaileek, eguraldi txarra tarteko, proba ez egitea erabaki zuten.

Juniorrak Eibarko asfaltora irten ziren: Udaberri proba jokatu zuten igandean. Luken Carbayeda izan zen Bazpiko lehena helmuga zeharkatzen; laugarren postua eskuratu zuen. Iñigo Altunak eta Oier Urbizu taldekideak ere bukatu zuten lasterketa.

Kadete mailakoek Donostian hasi zuten errepideko denboraldia: Ibaeta saria jokatu



Pasa den asteburuan hasi zen errepideko denboraldia.

zuten. Asier Ibarbia 19. postuan helmugaratu zen; Manex Altuna, berriz, 24. izan zen.

## Hasiera "txukuna"

Bazpi eskolako zuzendaria da Xabier Carbayeda. Errepideko sasoiaren hasiera honela baloratzen du: "Denboraldi hasiera izateko, oso txukun aritu ziren denak; ongi joan zen asteburua". Aurtengorako helburuez galdetuta, Carbayedak zita bat dauka gorri markatua egutegian: Gipuzkoako taldekako txapelketa. Maiatzaren 14an jokatu da, Irunen. "Iaz bigarren postua eskuratu genuen alebinetan", gogoratzen du.

Hemeretzi txirrindulari dituzte eskolak aurtan. Horietatik hiru alebinak dira eta sei infantilak. Kadete mailan ere sei aritzen dira, eta juniorrak dira beste lauak. Mutilak dira denak: "Izen-ematea urte osoan dago zabalik; 11 eta 18 urte bitarteko txirrindulariak aritzen dira

gurekin. Ea neskaren bat animatzen den!", dio zuzendaria. Kima masaje zentrorra joan behar dute interesatuek.

## Zabaletako kronoeskalada

Bazpiko zuzendaria aurreratu duenez, kronoeskalada bat ari dira antolatzen, Goiegi jatetxe ondotik hasi eta Zabaletaraino. Data ere buruan dute: San Pedro jaiak. Udalarekin ari dira hizketan, ekitaldiari itxura ematen. "Ez da izango soilik eskolakoentzat; proba herrikoia izatea nahi dugu".

Udalak ere baditu zenbait ideia buruan. Esaterako, futbol zelai bat eta atletismoko pista bat eraikitzea Atsopakarren, Bazpiko kideak zirkuloserako erabiltzen duten lur-eremuan. "Guretzat ez da oso ideia erakargarria. Udalak 200 metroko gune bat eraikitzea proposatu digu, baina 2.000 metroko bat beharko dugu, gutxienez. Ea zer bilakaera duen egitasmoak".

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

Larunbata 5

Michelin, 15:30ean

Ostadar SKT - Urmieta KE  
Emakumezkoen Lurralde maila, igoera fasea, 10. jardunaldia.

Michelin, 17:30ean

Ostadar SKT - Getariako Keta FT  
Erregionalen Ohorezko maila, 25. jardunaldia.

Igandea 6

Michelin, 10:00etan

Texas Lasartearra CD - Alle Punta FK  
Erregionalen Igo maila, Kopa, 10. jardunaldia.

Michelin, 11:45ean

Ostadar SKT - Añorga KKE  
Jubenilen I. maila, igoera fasea, 10. jardunaldia.

Berio, Donostia, 11:45ean

Antiguoko KE - Ostadar SKT  
Kadeteen Ohorezko maila, 22. jard.

Michelin, 13:30ean

Ostadar SKT - Touring KE  
Jubenilen Ohorezko maila, 22. jardunaldia.

## PILOTA

Igandea 6

Udalekoa, Hernani, 11:00etan

Hernani - Intza KE  
Igo mailako seniorrak, Udaberrikoa.

## BOLEIBOLA

Larunbata 5

Udal Kiroldgia, 11:30ean

Lasarte BHI - Summa Aldapeta  
Gipuzkoako txapelketa, 8. jardunaldia.

## ATLETISMOA

Larunbata 5/Igandea 6

Gallur Udal Kiroldgia, Madril

LOKEko atleta Eneritz Busto pista estaliko Espainiakoan ariko da, 60 metro hesietan, absolutu mailan.

## ARETO-FUTBOLA

Herriko areto-futbol txapelketa

Ostirala 4

Michelingo kirol gunea, 19:45ean

Also - Txindoki

Michelingo kirol gunea, 20:45ean

TSST - Txoko

Eskolapioak, Tolosa, 20:30ean

Hirukide Ikastetxea - ISU Leihoak  
Gipuzkoako Igo maila, 20. jardunaldia.

Larunbata 5

Michelingo kirol gunea, 9:15ean

Kattagorri Insausti - Urdaneta HK

Michelingo kirol gunea, 10:15ean

El Punto - Izkiña

Michelingo kirol gunea, 11:15ean

Reformas Lagunak - Trumoi

Michelingo kirol gunea, 12:15ean

Indaux - Viña del Mar

Udal Kiroldgia, 9:45ean

Lasarte Kafe Bar - Samaniego Orixe  
Gipuzkoako jubentak, 16. jard.

Udal Kiroldgia, 18:00etan

Ostadar Antonio - Goierri KE  
3. Nazional liga, 19. jardunaldia.

## SASKIBALOA

Larunbata 5

Udal Kiroldgia, 16:00etan

Ostadar SKT - Atletico SS  
Junior neskek, Euskal Liga, 6. jard.

Altza kiroldgia, Donostia, 20:00etan

Alde Zaharra - Ostadar SKT  
Senior gizonezkoen 3. probintzial maila, 2. fasea, 6. jardunaldia.

Igandea 6

Udal Kiroldgia, 9:30ean

Ostadar SKT - Andraitz KE  
Partizipazioko kadete neskek, 2. fasea, 10. jardunaldia.

Udal Kiroldgia, 11:00etan

Ostadar SKT - Hondarribia  
Errendimenduko kadete neskek, 2. fasea, 6. jardunaldia.

## IGERIKETA

Ostirala 4/Igandea 6

Toulouse (Frantzia)

Buruntzaldea IKTKo igerilari Iñigo Ibarburu, Itsaso Tolosa eta Mikel Esnal 'Meeting National Midy-Pyrénées' proban ariko dira lehiatzen, Gipuzkoako selekzioarekin.

## TXIRRINDULARITZA

Larunbata 5

Beasain, 16:00etan

Bazpi eskolako kadeteek Usurbe saria jokatu dute.

Orereta, 16:30ean

'Errenteriako saria' izeneko proban ariko dira Bazpiko txirrindulari alebin eta infantilak.

Igandea 6

Orereta, 9:45ean

XXXIII. 'Villa Errenteria' sariaren eragingo diete pedalei Bazpiko txirrindulari juniorrek.

## Agenda

Larunbata 5, 12:00etan, Xirimiri elkarte



### Saharar kanpamentuetan bizitza

'Lasarte-Oriatik mundura, mundutik Lasarte-Oriara' hitzaldi zikloan, Andoni Mujika herritarrak argazki diaporama eskaini eta Saharako kanpamentuei buruz hitz egingo du. Ostean, herrian bizi diren sahararrek haien kulturako zati bat erakutsiko dute, saharar dantzen emanalditxo egin eta tea eskaintzen. Era berean, kanpamentuetako irudiak ikusgai izango dira Jalgi Kafe-antzekian hilabete osoan zehar egongo den argazki erakusketan.

egitarauaren barruko ekintza.

**ANTONIO MERCERO ARETOA**

**Astearte 8, 11:00etatik aurrera**  
'Euskadiko emakume garrantzitsuak' erakusketa ikusgai izango da.

**EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA**

**Astearte 8, 18:00etan**  
Maria Morales idazle andoaindarrak 'La consciencia del tiempo?' liburuaren aurkezpena.

**BIYAK BAT ELKARTEA**

**Asteazkena 9, 17:00etan**  
Nagore Vazquez psikologoak gidatuta, umoreterapia tailerra egingo da. Jolasa, emozioa eta umorea landuko dituzte. Izena ematea Biyak Bat elkartearen egin behar da. Gaur da azken eguna.

**ELEBETZ TOPAGUNEA**

**Asteazkena 9, 19:00etan**  
Identitate ez normatiboen inguruko 'El test de la vida' dokumentala eskaini eta Amets Jordan Arrietarekin solasaldia egingo da. Lasarte Moria egitarauaren barruan.

**MANUEL LEKUONA, HAUR LIBURUTEGIA**

**Osteguna 10, 18:00etan**  
Etxeko txikiei zuzendutako 'Batak panpinak, besteak superheroiak' saioa izango da Kontu Kantoiko lagunaren eskutik.

**OKENDO PLAZA**

**Osteguna 10, 19:00etan**  
Kukuka dantza eta antzerki eskolako dantza saioa eta jarraian, poteo feminista. Lasarte Moria egitarauaren barruan.

**MANUEL LEKUONA, HITZALDI ARETOA**

**Osteguna 10, 19:30ean**  
Ines Bengoak 'Hotzikara' ipuiri erotikoa irukurriko du. Helduei zuzendutako ekintza.

## Lasarte-Oria

### Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**

**Gaur, ostirala 4, 22:00etan**

Okendo zinema taldearen eskutik, 'Sufragistas' filma ikusteko aukera izango da. Ostean, filmari buruz mintzatuko dira. Sarrera, 5,50 euro. Emakumeen nazioarteko egunaren barruko ekintza.



**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**

**Igandea 6, 17:00etan**

Haurrentzako zinea atalean, 'Koko dra goi txikia' animaziozko filma ikusgai izango da. Sarrera, 3,80 euro. Euskaraz.

**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**

**Igandea 6, 19:30ean**

Helduentzako zinea atalean, 'Sufragistas' filma ikusteko aukera izango da. Sarrera, 5,50 euro. Emakumeen nazioarteko egunaren barruko ekintza.

### Dantza

**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**

**Larunbata 5, 20:00etan**

Lasarte-Oria dantzan 2016 XII. dantza Zirkuituaren barruan, Kresala dantza

taldeak 'Oteiza Kaxa beltza' saioa eskainiko du. Sarrera, 5,50 euro.

### Islada Ezkutatuak

**UDAL BATZAR ARETOA**

**Igandea 6, 12:00etan**

Islada Ezkutatuak taldeak harekin batera lanean aritu diren herritarrak eta euren testigantzak partekatu dituzten herritarrei eskerrak emateko ekitaldia antolatu du. Hitza eta musika nahastuko dira honetan.

### Emakumeen nazioarteko eguna

**ELEBETZ TOPAGUNEA**

**Astelehena 7, 19:00etan**

Kafe tertulia egingo da. Lasarte Moria

## Herritarren txokoa

### Biyak Bat bidaia

Biyak-Bat jubilatuen etxeak Sevilla eta Cacereserako bidaia antolatu du maiatzaren 20tik 29ra.

Hilabete bereko 27tik ekainaren 5era antolatuta zen beste bat, baina autobusa bete da dagoeneko. Interesatuak izena eman beharko dute astelehenetik ostiralera 10:30etatik 12:30etara.

### Karteta jolasteko taldea

Emakume heldu bati larunbata arratsaldetan kartetan (mus, truke...) jokasteko taldea sortzea gustatuko litzaioke. Interesa duena jar dadila harremanetan honako telefono zenbakian 21:30ak baino lehen: 943 36 33 71, Ana.

### Eskutitza

Aspaldi eta nahigabe utzi nuen kuadrillismoa, besterik gabe, jendearen bideak aldatzen joan ziren, ez genituen jada interes berdinak konpartitzen eta nire ametsi ez uko egitearren nahi nuena egiten hasi nintzen, nirekin norbait etorri zein ez.

Garai batean tipo sozialea nintzen, eta dakizuenek, herrietan identitateak monolitikoak dira. Bada oraindik nerabazaroko anekdota batengatik modu batera deitzen nauenik, orduko persona bera naizelakoan, pentsa. Kuadrillekin hausteak askatasuna eman zidan, norberaren nahien arabera bizitza hautatzeak eman ohi duen moduan, baina hori hasiera besterik ez zen izan. Mundua hausten denean datoz komeriak. Emozionalki suntsitua zaudenean, munduak zu zure horretan ulertzen zaituen espaziorik ez dagoela esaten dizunean, bakartua sentiarazten zaituenean. "kaixo! kaixo! zelan? ondo, ta zu? beno... zeba? beira..." rik izatea ezinezkoa denean, kuadrillismoaren (zeinetik at zauden) muga hertsia edo hotza direnean eskeintza bakar.

### Kuadrillismoa eta bakardadea

Nola da posible kuadrillen, elkarrekin, jai batzordeen, konpartsen, asoziazionismoaren eta jatortasunaren gure jendarte hontan bakardade sentimendua horren nabarmen eta kezgarriki joatea gorantza? Ustezko sentimentu komunal bat dugu, herri bezala gauza asko egitera eraman gaituena, milaka gauza sortu ditugu elkarrekin artean (komunikabideak, ikastolak, gaztetxeak, kultur espazioak, lantegiak, hainbat eta hainbat eskubide defendatzeko espazioak...), pertsona bezala aldiz sekulako hutsuneak ditugu. Geroz eta gehiago gara minez gainezka bizi garenak, hau lantzeko espaziorik ez ezean eskusio sozialera goazenak gure autoestimua suntsituek jendearekin hitz egitea ekiditen digutelako edo barruan dugun mina horren delako sakona, inori kontatu baino, "ondo" gaudela esan, ahal dugun moduan estali eta horrela bizirauten dugula. Eta hau ez dago inoiz agendetan.

Erlazio moduei aspektu ludikotik heltzen zaie, "denok eramaten gara

ondo eta horrela gehiago ezagutuko gara", baina ez dute inoiz beste aspektua lantzen, nik neuk konta dezaket askotan geratu naizela etxean kalean zerbait interesgarria egonda ere, kalea iritzeak eta jendearekin nola harremanetara nintzen ez jakiteak sortzen zidan minak eraginda (ta hori kontuan hartuta erlatiboki pribilegiatu sentitzen naizela erlazioen aspektuan, jende askok ezagutu nauelako txiki txikitatik, ez dut imaginatu nahi beste batzuen mina).

Seguru nago, bizi esperientziak hala erakutsi didalako, sentimendu hauek uste baina orokortuagoak dardela gure herri guai hontan, eta herri bazkari eta dinamika partehartzaileez gain nago pentsatu beharra dugula honen aurrean zer egin. Ni behintzat nazkatuik nago mina isilarazteaz. Bada zaintza eta afektuak ere komunalak bihurtzeko garaia.

**Eneko Oroz Ormazabal**

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48  
txintzarri@txintzarri.eus

# Berdintasunaren alde

TXINTXARRIK bere publizitate eta albisteetan ez du sexismorik erabiliko

**TXINTXARRI** aldizkariak bat egin du publizitate eta komunikazio ez sexistarako Kode Deontologikoarekin, beste 50 komunikabide eta publizitate agentziarekin batera. Honen bitartez, besteak beste, emakume eta gizonen berdintasunaren alde egiten dugu, diskriminazio ezarekiko konpromisoa eta emakumeak ikusgai egiteko konpromisoa hartzen ditugu.

## TXINTXARRI

Lehenengo ostiralean, Eusko Jaurlaritza eta Emakunderek Euskadiko publizitate eta komunikazio ez sexistarako Kode Deontologikoa eta honen autoerregulazioa aurkeztu zuten Gasteizen.

Aurkezpenarekin batera, 50 bat komunikabide eta publizitate agentziek Kodearen aldeko haien atxikimendua sinatu zuten Emakundeko lehendakari Izaskun Landaida eta Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozeramailea testigu zirela. Horien artean izan zen TXINTXARRI aldizkaria ere.

## Kodea

Honen bitartez, hainbat kon-

promiso hartzen ditu aldizkari honek.

Hemendik aurrera, gure albiste eta publizitate tartetan, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko hainbat puntu izango ditugu kontuan: estereotiporik eta hizkuntza ez sexista ez erabiltzea, indarkeriaren arloko legeei begirunea izan eta indarkeriarik gabeko bizitzaren alde egitea, diskriminaziorik ez egitea, emakumeak ikusgai egitea edo dibertsitatea erakustea.

## Urte eta erdiko lana

Emakundeko Begira Batzordeak, Publizitate eta komunikazio ez sexista erabiltzeko Aholku Batzordeak, bultzatuta-



Eneko Barberena, Tzakuneko kidea joan zen TXINTXARRIren izenean. Irudian, kodea sinatu zuten TOKIKOM elkarteko kideekin.

ko kode hau erakunde eta komunikabideen elkarlanari esker eratu da.

Urte eta erdian, modu parte-hartzailean, komunikazioaren eta publizitatearen arloko erakundeek haien proposamenak egin, hauek landu, kontraste prozesua aurrera eraman eta kodea argitaratu eman da.

Begirak azpimarratzen duenez, publizitate-agentziak eta komunikabideak sozializazioarako eta balioen transmisioarako eta aldaketarako eragile garrantzitsuak gara gure gizartean, funtsezkoak berdintasun-maila handiagoko gizarte baterantz doan irizki publikoa sortzeko eta

horregatik sustatu zuen proiektu hau.

Begira Batzordearen helburu nagusia eduki mediaticoen emakume ez gaizki tratatzea, ez umiliatzea edo mendekotzat ez aurkeztea, eta, era berean, emakumez eta gizonen ematen den irudia lortu nahi den errealitate sozialarekin bat etortzea da.

## Saharako kanpamentuen egoera azaleratzen

Lasarte-Oriatik mundura, mundutik Lasarte-Oriara' hitzaldi zikloak Saharako egoera izango du protagonista aste honetan. 'Sahara libre' izenpean bi ekintza antolatu dituzte, hitzaldia eta argazki erakusketa.

## Kanpamentuen egoera

Larunbatean, 12:00etatik aurrera, Andoni Mujikak argazi diaporama bat eskainiko du.

Mujikaren familiak urte asko daramatza harrera familia gisa saharako haurrak hartzen. Hori dela eta, abenduan kanpamentuetara egin zuen bisita azalduko du.



Tindoufeko kanpamentuetako egoera islatzen duten irudiak ikusgai daude dagoeneko Jalgi Kafe-antzikian.

Era berean, bertan bizi duten egoera era azaleratuko du.

Honetaz gain, herrian bizi diren Fatu abahai eta Mailima Abahai saharauiarrek haien

herriko dantzak erakutsiko dituzte eta bitartean, tea dastatu ahalko da.

Antolatzaileek hitzaldia euskaraz egingo dela eta nahi duenak itzultzailea izango duela gogorarazten dute.

## Erakusketa

Bestetik, Saharako kanpamentuetako argazki erakusketa izango da hilabete osoan zehar Jalgi Kafe-Antzikian.

Garikoitz Lasa donostiarraren lana izango da berriro ere ikusgai. Izan ere, otsailaren 27an, Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoaren 40. urteurrenean, Antonio Mercero hurbildu zirenek dagoeneko Smara, El Aaiun edo beste kanpamentuetako irudiekin gozatzeko aukera izan zuten.

**parafarmazia**

Pablo Mufiozabal z/g, Lasarte-Oria  
Tel. 943 36 96 79

## HAUR-ELIKAGAIEN HAMABOSTALDIA

martxoaren 5etik 20ra

3X2

haurren elikagaietan

%10

haurren kosmetikoetan

\*Lehenengo esnean (bularreko haurrentzat), Nutriben eta Hipp produktuetan izan ezik